

- **Kirola:** Ainhoa Izagirre eta Jasone de Po palan irabazle
- **Kultura:** Francisca Iraolagoitiaren ikurrina berezia danborradan

soraluzeko
hamabostekaria **203.** alea
2009ko uztailearen 17an

pil-pilean



UDALEKU IBILTARIXAK
herrixa ezagutzeko



BODEGA ESTACION



Pizzak eta oilasko errea jaixetan!

- Bertan jateko edo eramateko
- Edozein ordutan prest, gauean zein goizaldean

Deitu edo etorri gurera:

Estazioko Bodega

T. 943 75 18 54



haurrentzako masaje ikastaroak

Nerea Mendizabal ,haur masaje hezitzailea

5 saio: Irailaren 10etik-Urriaren 7ra (ostegunetan Plaentxi Herri Ikastetxean)

- 0-1 urteko haurrentzat, 16:00etatik-18:00etara
 - 1-6 urteko haurrentzat, 18:00etatik-20:00etara
- haur bakoitzeko 2 pertsona joan daitezke

PREZIOA: 70 euro bazkideentzat 75 euro bazkide ez direnentzat

izena emateko / informazioa jasotzeko: koordinazioa@pilpilean.com edo 943751304

* izena emateko azken eguna: Uztailak 30, osteguna. Plaza mugatuak dira eta izen emate ordena errespetatuko da





BITTOR TREBIÑO



ANDER EPELDE

OPORRALDIA

Kaixo Ander! Urtean zehar aspergarri samarrak bihurtu diren gure kontuak irailera arte ixilaraziz, oporrak hartzeko garaia iritsi zaiela esan behar. Oporrak, bestalde, gertu daukagun Garoña zentralari 2013 urtera arte eman dizkiotenak. Urte horretan berrogehi ta bi urte beteko ditu zentralak lanean, mundu mailan jubilatatu dituzten 122 zentralen bizi-iraupena hogeit eta bi urtekoa izan denean. Urte horretara iristean gobernu aldaketa balego, ikusi egin behar zein trataera ematen dioten. Osasuna eta ingurunea arriskuan jartzen delako sortu dira ekologiaren aldeko taldeak. Hautentzat lanik ez da faltako datozen urteetan.

Gogoz kontra estatuan oporretan egongo diren lau milioi pertsonen egoera ez da nolana hikoia izango. Caritas-en datuen arabera, aurreko urtearekin alderatuz, azken urtean laguntza sozialak behar izan dituztenen kopurua %50 gehitu baita.

Arazoak arazo, egunerokotasunari eten bat ematea komenigarria ere bada, Ander. Ezinezko alitzateke arazo artean bizitzea eta lortu ezin ditugun gauzak, ametsetan behintzat lortu daitezela! Eta ametsetan hastekotan, inguruan dauden parajeetaz lagunekin gozatzea baino gauza ederragorik ba ote?

Ondo ibili. ☞

Arazoak arazo, egunerokotasunari eten bat ematea komenigarria ere bada

Bittor Trebiño

Baikorrak eta aldaketa zaleak berriz, krisiaren onurak ozenki hasiak dira oihukatzen, Gora Krisia!

Ander Epelde

Eup Bittor! Bizimodua lasai hartu behar da, ezta! Zer erraz esaten den, baina zein zaila betetzea.

Garbi ikusten dugu bizkortasuna oso loturik dagoela aurrerapenarekin, ez dago mundu lehiakor honetan atzean geratzetik, nahitaez beti aurrera. Horretarako bide guztiak ditugu zilegi, berdin zaigu gizakia zein natura menperatzea eta hondatzea.

Ohituta geunden bizimodu oparo batera eta bat-batean motelaldia edo krisia etorri zaigu. Hitz magikoa, urte batzuetan nahiko genukeena baino gehiago entzungo duguna. Eta honek ez du barkatuko, denok alde batera utzi beharko ditugu ijiak eta ajak eta baita firinfaranak. Aldaketa sakonak eman beharko ditugu krisi hau dela-eta. Baikorrak eta aldaketa zaleak berriz, krisiaren onurak ozenki hasiak dira oihukatzen, Gora Krisia!

Horregatik, datorkigunaren aurrean, oporrak oso garrantzitsuak diradenontzathurrengolanaldigogorrari gogoz heldu nahi badiogu, utziaz alde batera arazoak, kezkak eta buruhauste guztiak. Gainera, zer arraio! Sistemak funtziona dezan horretara bultzatzen gaituzte, gure lanen gainetik bizitzera eta gero, gerokoak! Hor konpon!

Bidaia agentziak leku turistikoak (*modakoak*) eta banketxeak (*ematen badute*) ere bizitasuna behar dute eta bestela, Aupa Etxebeste! ☞

Goguan hartzeko

“Erromerixa gitxi, dirurik eztauenien”

Gotzon Garatek batua, atsotitza



GUTUNAK

Ez dago kalitatezko langile euskaldunik ala?

Badirudi adinez nagusiak izan arren pertsona batzuen buruan oraindik oso garatuak ez diren pentsamenduak ere badirela bueltaka, eta hori internetean aurkitu nituen Euskal Autonomi Erki-degoko PPko presidente den Antonio Basagoitik informazio zerbitzuetara eginiko deklarazio batzuk irakurtzean egiaztatu ahal izan nuen.

Deklarazio hauek Osakidetzako OPE-etan beharrezko euskara maila aurkezteko ahalmena izan ez zuten langileak babestu nahirik egin zituen. Bertan PPrentzat euskarari eman beharreko balorazio maila lehenasunezko gai bat dela esaten zuen haseran baina egiten zituen gainerako idatzietan begi piskat jarritz gero, "lehenasun" horieuskararen babesarekin loturik ez zihoala ere argi ikus zitekeen. Idatzian zioen lanpostuak lortzeko orduan hizkuntz arrazoiengatik ez dagoela oposaketetik jendea baztertzearen alde.

Bere ustetan lan egin eta etekinak ateratzen dituzten langileak bakarrik hartu behar omen dira kontutan. Pertsona honi (*Antonio Basagoiti*) gogorarazi nahi nioke Osakidetzan lan egiten ari diren pertsonak gizarte elebidun bat ari direla zerbitza-

tzen eta hizkuntza bat bakarrik jakinez gero, gizar-tearen zati batekin bakarrik edukiko dutela zuzen erlazioatzeko aukera, beste zatia mespretxatuz edo berea ez den hizkuntza bat egitera behartuz. Edozein pertsona zentzudunentzat hizkuntzaren ezezagutza hau nahiko oinarri logikoa izan beharko litzateke pertsona bat zerbitzu lanpostu batetako oposaketetan baloratzerako orduan onartzeko edo aukeraketatik kanpo uzteko.

Badirudi Antonio Basagoitirentzat ez daguela Osakidetzan ondo lan egin dezakeen langile euskaldunik, zeren eta idatzian euskara, jakintza eta langileen kalitate onaren kontrako ezaugarri moduan jartzen baitu uneoro, adb: "*lan egin eta etekinak ematen dituzten langileak behar ditugu eta ez jendea baztertzea hizkuntz arrazoiengaitik*". Edozein pertsona zentzuduni langile aukeraketa egiterako orduan kalitatedun langile elebakarra edo kalitedun langile elebiduna jartzea besterik ez litzateke egin beharko aukera zein izango litzatekeen jakiteko.

AIDOR AIZPURU

Jaixetan dantza poteoa

Urrats Dantza Taldeak jakinarazi nahi du uztailaren 26an, Santa Ana egunean, dantza poteoa egingo dela. 19:30ean Zubi Nagusian batuko dira musikariak eta dantzatu nahi duten guztiak, eta 20:30ean Larrain Dantza egingo da Plaza Zaharrean, zezenaren ostean.

Pil-pilean Kultura Elkarteak ez du bere gain hartzen aldizkari-ko esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Pil-pilean

Argitaratzailea: Pil-pilean Kultura Elkarte. Errabal kalea 15- 1., PK 27 - 20590 Soraluze, Gipuzkoa **Telefonoa:** 943 75 13 04 **e-maila:** aldizkaria@pilpilean.com **Erredakzioa:** Leire Iturbe eta Miren Narbaiza **Erredakzio batzordea:** Egoitz Unamuno, Enara Agirre, Jon Basauri eta Aitor Madrid **Publizitatea:** Ane Larreategi **Logotipoa:** Pablo Galarraga eta Silvio Vaz **Diseinua eta maketazioa:** Silvio Vaz **Inprimategia:** Gertu Koop. **Banaketa:** Pil-pilean Ekoizpena, 2.000 ale **I.Z.K.a:** G20696563 **Leg-e-gordailua:** SS-537-2.000 **Azaleko argazkia:** Jokin Etxaniz

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



SORALUZeko
UDALA



GIPUZKOAKO FORU
ALDUNDIA

bittartetik

Gorka Prieto

Euskotarrak

Azkenean deskubritu dut zer naizen! Euskotarra! Euskotarra naiz, eta ni orain arte enteratu barik. Baina ez nola nahiko euskotarra, aizu! Telebistako eguraldiaren mapa haundituz Errioxa eta Kantabriaren konkista garrantzitsuak egiten dituen euskotarra naiz. Mediki oso ikasiak baina bertoko hizkuntzan analfabeto direnak merezi dituen euskotarra. Irakaskuntzan karramarroek bezala euskarak atzera egitea nahiago duen euskotarra. Euskara 'pagafantas' hutsa bihurtuko duen euskotarra, asko estimatu eta lagun leialtzat izan arren, ohera joateko beste hizkuntza bat aukeratzen duen euskotarra.

Baina era berean euskotar izate berri hau irakasgai izatea nahi nuke. Euskalgintzan urte askoz, batez ere lan desinteresatu askoz, lortutako emaitzak pikutara joan ez daitezten. Euskotar izatearen atzerapausoa abixada hartzeko izan dadin, ondoren beste jauzi itzaropentsu, luzeago eta oparagoak emateko gai izan gaitezen.

Bedeinka ditzala beraz Jaungoikoak 'euskotar' hitz berria asmatu eta gure bizitzetara ekarri duten politikariak, beraiek baitira, hurrengo hiruzpalau urteotan behinik behin, beraien erabakiekin, gure etorkizuna erabakiko dutenak. Jaungoikoak konfesatuta harrapa gaitzala!

((ENTZUTEKUAK))

Inma Matute, Agustin Jauntsarats eta Conchi Pozo, Jai Batzordeko kideak

Uztailan 24an hasiko dira Santiago-Santa Ana jaixak eta Jai Batzodiak oin dala bi aste inguru itxi zeban aurtengo egitaraua. Guztira, 30 bat lagunek hartu dabe parte egitaraua prestatzeko bileretan eta pozik agertu dira lortutako emaitzak.

Gustora geratu zarie lotu dozu en egitarauakin?

Orokorrian bai. Diru falta dala eta ekitaldi batzuk kendu bihar izan dittugu baina azkenian lortu dogu nahiko osua izatia jaixetako egitaraua. Aurten udaletik 30.000 euro gutxiago jaso dittugu eta zaila da pasadan urteko egitaraua bere horretan mantentzia. Datorren urtian ikusiko da zenbateko aurrekontua daka gun!

Zenbat denbora bihar izan dozue dana lotzeko?

Guztira bi hilabetetan 5 aldiz bildu gara bi orduz eta eztabaida sakonak izan dittugu. Lehenengo bilera, pasadan urteko egitarautik zer kendu eta zer ez erabatzeko izan zan. Zer aukeratu erabaki ostian, ordutegiak finkatu bihar izan genduzen eta azkenik diru kontuak begiratu bihar!

Zenbat elkartek hartu dozue parte jai batzordian?

Adin tarte ezberdineko norbanakuak biltziaz gain, AMPA, Pil-pilean, Gaztetxia, Galtzago-rrixak, Merkatarien Elkartia, udaleko ordezkari politikuak eta Danborradako ordezkariak bildu gara.



Jai batzordeko kideak

30.000 euro gutxiago izatiak, zertan eragin dau?

Guretzat pena bat da kale-animazino gehixago ez egotia. Holako ekitaldixek girua sortzen dabe eta girua egotia biharrezkua da jai herrikoi batzuetan. Rock kontzertu haundixa kendu bihar izan dogu, diru asko eskatzen dabe eta. Gainontzekua, izan dogun aurrekontua ikusitta, oso ondo daguala pentsatzen jaku.

Eta zein da aurtengo eskaintza potoluena?

Umien danborrada izan da aurtengo eskaintza haundixena eta berrikuntzak sartzen be ahalegindu gara, Apar-festa esaterako. Txoznak Zubi Nagusixan egotia oso ideia egokixa dala uste dogu, jaixa herri erdixan daguala erakusten dabelako eta nagusixek be dantzaldixa izango dabe, gorputza nahi beste mugitzeko. Bestela, bazkari herrikoia eta kontzertuak izango dira. ☞

Aurrekontu txikixagua baina gustoko jaixak

IÑAKI IÑARRA
HARATEGI ETA URDATEGIA

Enkarguz eskatutako janaria ere prestatzen dugu

Kalebarren 29
Soralueze
T. 943 75 12 49

CERTICAR
CONSEJO REGULADOR DE PRODUCTOS DE CALIDAD

H.NOS. BENITO ANAIK


Etxeko eta Sukaldeko Altzariak
Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

T. eta F. 943 75 20 47
Santa Ana 26, 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

Udalak biribilgunea gauzatzeko eskatu dio Aldundiari

Biribilgunea errepede nagusian kokatuko litzateke.



Udal batzarraren azken ohiko saioan, iparraldeko sarbide eta irteeran biribilgunea lehen-tasunez gauzatzeko eskatu zitzaion Foru Aldundiari, "premia handia duela" ulertuta. Bestalde, EAJ eta PSE/EE alderdiek, ETA-ren azken atentatua gaitzesteko mozioa aurkeztu zuten eta onartu egin zen, EAJko (hiru), EAKo (bi), PSE-EEko (bi) eta PPko (bat) Batzarkideei dagozkien aldeko zortzi botoz eta Jose Luis Arizaga Urizar, Larraitz Lakuesta De la Fuente eta Aitor Prieto Oregi zinegotziei dagozkien hiru abstentzioz. 

Karakate-Irukutzetako auzolandegia ez da egingo

Uztailearen 6tik 19ra egingo zen auzolandegia bertan behera geratu da izen-emate eskasiagatik. Deialdia 15-18 urte bitarteko gazteei egin zitzaion, gutxi eman dute izena eta azkenean ez da egingo.

Jaietan saihebidetako errailetako bat aparkaleku

Santiago-Santa Ana jaietan izango diren ekintzek herriko aparkaleku kopurua gutxituko duenez Udalak bide berriko (saihebidetako) errailetako bat aparkaleku bihurtuko du. Uztailearen 21etik abuztuaren 3ra bide berria noranzko bakarrekoa izango da, Bergaratik Maltzagarakoa.

Soraluzetarrak Atzegiren azken topaketan



Atzegik, Gipuzkoako adimen urritasuneko pertsonen aldeko erakundeak, Debabarrenetako familiak elkartu zituen Eibarren elkartearen XII. topaketan. Eguerdian mezetara joan ziren eta ostean argazkia atera zuten. Soraluzeko familiek ere parte hartu zuten.

San Martzialen egunpasa

Igerileku edo hondartzaren faltan, eguraldi onaz goza daiteke eta asko dira San Martzialera eguzki apur bat hartzera joaten direnak. Itzala eta ur freskoa eskura izanik, herritik larregi urrundu barik lasai egoteko leku bikaina da.



MARI MAR HARATEGIA

Gurean
Euskal Herriko
produktuak!

Tel. 934 75 24 02
Santa Ana kalea, 4 Soraluze



PASCUAL CHURRUGA, S.A.

Hotzian eta beruan
jotako tornilluak

Errekalde 21
20590 SORALUZE

T. 943 75 00 06
T. 943 75 16 00
F. 943 75 24 61



SAN ANDRES ITURGINTZA

Iturgintza, gasa,
eta berogailuak
sukaldeak eta bainuak

Errebal kalea 2 behea T. 943 75 16 46



MENDIZABAL okindegia

Kalebarren 10
T. 943 75 20 91

Baltegieta 6
T. 943 75 13 99

SORALUZE

EHE, euskararen lehen tasuna exigituz



Soraluzeko EHEk Sagar Errekako sarreran jarri diren obretako karteletan euskararen ordenantza ez dela betetzen salatu du, euskara ez delako lehen tasunez ageri. Dagokionari horiek aldatzeko exijitzen diote.

Zaharren egoitzakoak Debara



Uztailaren 21ean, martitzena, Meseedetako Amaren Egoitzako nagusiek, boluntarioek lagunduta, Debara irteera egingo dute. Eguerdiko 15:00etan irten eta afal ordurako bueltan izango dira. Interesatuak 943 75 11 36 telefonora deitu.

M. Borinagak, A. Osorok eta O. Larreategik ohorezko matrikula lortu dute

Elgoibar BHI institutuan ikasten duten Miguel Borinaga, Ane Osoro eta Eibarko Ignazio Zuloaga Institutuan ikasle den Oier Larreategi soraluzetarrak ohorezko matrikula lortu dute aurtengo ikasturtean. Borinagak gainera, sari gehigarri bat jaso du, "Aparteko Batxilergo Saria" deritzona. Gutxieneko nota bat gainditzen duten ikasleak aurkeztu daitezke sari hone-

tara eta EAEn 15 ikaslek baino ez dute aukera hori. Azterketa batzuk gaintitu ondoren, 935 euroko dirusaria eta udan atzerrian ikasteko beka irabazi ditu. 2008an Nerea Iñurrieta eta Garaiz Arizagak lortu zuten ohorezko matrikula Elgoibarko institutuan, eta 2007an Maite Kintanilla, Maite Goenaga eta Jone Oregik. [G](#)

Ohorezko matrikula lortu duten Elgoibarko Institutukoko zortzi ikasleak.



Iturria: Elgoibarren.net

argitek
ELEKTRIZITATEA
Tlf.607 486 428 SORALUZE

Merkatu Plaza 20590 Soraluze t. 943 75 24 40
egunerako arraina eta konjelatuak
Juan Mari arraindegia

MAPFRE
SORALUZE ZERBITZUAK S.L.
Juan Luis Ibarzabal - Ainhoa Ibarzabal
Gabolatz, 5-8 Behea 20.590 Soraluze (Gipuzkoa) e-mail: jlibarza@inlonegocio.com
Tlf.: 943 75 16 58 - 943 75 30 12
Mugikorra: 649 49 79 59 - 649 75 90 78
FAX: 943 75 16 10

Kontulan Aholkularitza S.L.
Enpresa aholkularitza Jabe Elkarteak Aseguruak
Santa Ana, 13 - 1. ezk. Tifonoa: 943 75 17 82 Faxa: 943 75 01 82
20590 Soraluze GIPUZKOA



Udalekuetako gazte eta begiraleak.

Herriko baserri eta mendiak gaztetxoen topaleku

Kukumixo Aisialdi Taldeak antolatutako bigarren udaleku ibiltarixak aste honetan egin dira. Mendian gora eta behera. Izerdiak eta barreek etenik ez. Jolaserako beti prest. Platerak garbitzen ere fin dabilta. Gazte gara gazte!

Txalaparta zelan jo irakatsi zien Jonik.




Untzeta-erdiko zelaletan gustura ibili ziren.



29 gaztetxo eta bost begirale Irure eta San Andres auzoetan ibili dira, mendiak eta baserriak ezagutzen, jolasean, kantuan... Lau egun eta hiru gau eman dituzte udaleku ibiltarixetan 12-14 urte bitarteko gazteek. Batzuek errepikatu egin dute, besteentzat lehenengo aldia da, baina denak ados daude: gustura dabilta galdetuta, baiezko alai eta zaratatsua jaso dugu.

Baserrietako gazteak irakasle

Ondo pasatzeaz gain, gaztetxoek euskara naturaltasun handiagoz egin dezaten da Pil-pilean Euskara Elkartearen helburuetako bat. Herriko bazterrak, herritarrak, mendiak eta baserri giroa, gure kultura ezagutzea horrekin batera doa. Untzeta-erdikoan eta Mendizabalen izan dira udalekuetakoak, bertan bizi diren gazteen lana gertutik ezagutzera joanak. Lehenengoan artzain ofizioa bertatik bertara ezagutu dute, Aritz Soduperen azalpenak jasota. Mendizabalen ostera, Jonik txalaparta ikastaroa eman die, baita sortzen ditugun hondakinak ongarri zela bihurtu erakutsi ere. Baserrietan lo egitea gainera berria izan da askorentzat. 



UGAITZ CATALAN, 26 urte

Ze da udaleku honetan gauzarik onena?

Herriko taldea izatiak abantaila ugari daukaz. Ume gehixenak ezagunak dira, herrixan dana dago eskura, ber-bertan, eta horrek lasaitasuna emoten dau.

Zein da egin dozuena ekintza aipagarriena?

Neri gehixen gaubelako jolasak gustatzen jataz, afalostekuak. Onena "piropoposta" da: Umiak kaxa batian papeltxuak sartzen ditue nahi dabena idatzitta, mailla-sunaz, laguntasunaz. Gehixenak anonimatu lagatzen dabe, baina badira laguntasuna elkarri adierazten dotsen betiko lagunak be.

Helburu jakinen gainian jarduten dozue?

Euskara elkarte bat dan heinian, betiko helburuak hor dare, euskara, parekidetasuna... Baina behin horrek danak kontuan izanda, danan gainetik ondo pasatzia da gure helburu bakarra.



MAITE GARMENDIA, 12 urte

Udaleku ibiltarixetara zoiazan lehenengo aldixa da?

Ez, iaz be etorri nintzan. Juan zan urtian oso ondo pasatu nebenez errepikatzia pentsatu neban, lagun kuadrilla ixa osua apuntatu gara. Beste udaleku batzuetan be izan naiz, Arotzanean, Aubixan eta Askixun.

Zer da gehixen gustatu jatzuna?

Batez be gaubelak. Musika kaxa be beti egitten dogu eta primerakua da!

Udaleku ibiltarixetara juatia gomendatuko zenduke?

Bai! Oso ondo pasatzen dogu eta. Gainera nahixago dittut honek, herrixa ezagutzen dotelako eta baita herriko jende barrixa be!

“Danan gainetik ondo pasatzia da gure helburua”

“Herrixa eta bertako jende barrixa ezagutu dittut”

Malabarak egiten ikasi zuten.



San Andresen kanpin dendetan egin zuten lo.



ZER IRIZTEN DOTSAZU?

Santiago - Santa Ana jaixak gero eta gertuago egonda, herritarren artian igartzen da parrandarako gogua. Jaixeri mamina etaratzeko irrikan eta prest dare plaentxiatarrak.

Zer da herriko jaixetatik gehixen gustatzen jatzuna? Eta ingurutik?

IÑAKI OÑATE
Arotza



FERMINA ARRIOLA
Jubilatua



OSKAR GIL
Sukaldarixa



LOLI HERRERA
Okina




Neri gehixen gaupasia eta ondorengo goiza gustatzen jataz. Giro ona eta txoznarik barik ez lirake jaixak izango. Eibarkuetan be ondo pasatzen dot, baita beste herri batzuetan egoten diran asburetako parrandetan be.

Neri jaixetatik dana gustatzen jata. Hori bai, ihezkuak bereziki edarrak izan ziran, zurbixan txahala erre zebene-kua daukat goguan. Bestela Eibarko danborradia eta San Ferminak be oso jai onak izaten dira.

Herriko jaixetatik onena kontziertuak dira. Giro oso ona egoten da. Ihez jaixak zubira bajatu ziran eta hori primerako erabakixa izan zan. Suak be asko gustatu jatazen. Bestela, Gasteiz eta Ondarruako jaixetara juaten naiz.

Ihezkuak edarrak izan ziran, oso konpletuak izan ziralako. Herri guztiandako prestatu ziran. Gehixen paellia egin zaneke eguna gogoratzen dot, gazte zein zahar festa berian egon ginalako. Eibarko danborradia be oso ondo egoten da.

KOMIKIXA



Ion Murgizu Pinturak

MARGOKETA OROKORREAN

Empapelatuak

Estukoak

Fatxadak

Eskilarak eta patioak

Pintura industrialak

T. 943 75 1324 M. 652 777 030

Ezoziko etorbidea 24, 2 Behea

Javier Alonso Zelaieta
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
K.Z. 20.000.434

Jon Azlorbebetia Txurruka
K.Z. 20.000.752

HORTZ KLINIKA

Errabal 1 - Barrenekoa 2

T. 943 75 16 13

Irureko Jaiak abuztuaren 2an ospatuko dira



Datorren hileko lehenengo domekan izango da Irure auzoko jaien ospakizuna. Urtero legez, 12:30ean meza egingo da eta ostean, luntxa bertaraten diren guztientzat. Horrez gain, Larreategi anai-arrebek giroa alaituko dute trikitixarekin. Denbora batez ohitura galdu bazen ere, duela hiru urtetik berreskuratu dira Irureko jaiak eta urte askorako izatea espero dute auzotarrek.

Oregi eta Loscos saritu dituzte Eibarko Argazki Rallyan



Soraluzetarren lanak besteenak baino hobetzat jo zituen epaimahaiak hildaren 7an Eibarren izandako argazki rallyan. Fernando Oregik digitalean eta kolorezko kategorian lehenengo saria irabazi zuen eta zuri-beltzean bigarrena. Silvia Loscosek umeen kategorian lehen saria lortu zuen.

Burux Lee eta Karkabaren kontzertua gaur gaztetxean


Zarauzko eta Azpeitiako musika taldeek hardcore doinuak eskainiko dituzte gaur gauean gaztetxean, gaueko 22:30etan hasita.

Francisca Iraolagoitiak danborradako ikurrina josi du



Francisca eta bere semeak ikurrinarekin.

Ikurrin berria erakutsiko dute aurten danborradetan. Egunean zazpi eta zortzi ordu bitartean eman ditu Iribeneko Franciscak danborradako ikurrinari azken ikutuak ematen. Irailean ekin zion lanari eta oso pozik dago emaitzarekin. Lan mardula egin du 1'40 x 2 metroko ikurriñean. Alde batetik, "Soraluzeko Danborrada" hitzak josi ditu eta bestetik, danborrak, barrilak eta

kañoiak bordatu. Makilaren puntan, Luis Urizarrek tailarrean egindako lauburu dotorea darma: "Lauburuak bueltan egiten du mekanismo baten bidez, ikurriña aireratzean bere baitan ez batzeko" azaldu du Franciscak. Hamasei urterekin ikasi zuen josten eta bordatzen eta egun, profesionala da eskulanean. Nagusien eta umeen danborradan erakutsiko da bere lana. 



Jai-giro ederra San Andresen

Zapatutik astelehenera musika, ikuskizunak eta jan-edanak gozatu zituzten San Andrestarrek eta kaletik edo inguruko herrietatik etorritako ehundaka lagunek. Aspaldian izan diren jendetsuenak. Txopo-makilara ia-ia goraino igo ziren bi lagun ikurrinaren bila, beste askok ezin...

GILA TABERNA
GOIZEKO 6:30ETATIK AURRERA ZABALIK
**GOSARIAK
ETA PINTXO
GOXO GOXUAK**
ERRABAL KALEA 15 T. 943 75 18 34



KM Desing
Discinua eta Sormena
Poligono Amillaga, nº 5
Tlf.: 943 76 99 85
20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Barruko altzairuak

Jasone de Po eta Ainhoa Izagirrek irabazi dute Pala Txapelketa

Jasone, Ainhoa, Ireber eta Ainara.



Joan zen zapatuan jokatu zen torturaren aurkako pala txapelketako finala. Ainhoa eta Jasonek 30-13 irabazi zieten Amaia eta Alanari. Hirugarren eta laugarren postuetan, Ihart eta Maialenek osatutako bikoteak 30-12 irabazi zien Irati eta Iriberrri. Aurretik barru herrikoia jokatu zen eta ondoren Txurrukan afaldu zuten txapelketako parte hartzaileek. ☞

5 herritar 'Extreme Bardenas' mendi bizikleta proban

Nafarroako Bardeetan, euskal eremurik desertikoenean, mendi bizikletaz egiten den 100 Km-ko zeharkaldi ikusgarria da *Extreme Bardenas*. Guztira, 1.518 txirrindularik hartu dute parte Arguedaseko txirrindulari

"Bardenas Etxreem" probako irudi bat.



elkartek antolatutako proba gogor honen 12. edizioan. Helmugara baina, 1463 txirrindulari iritsi dira, 55ek bertan behera utzi behar izan zuten froga. Hauen artean dago Dani Fulgencio sorluzetarra. ☞

SORALUZETARREN SAILKAPENA:

Izena	Denbora
Eneko Ariznabarreta	07:27:49
Miguel Anjel Gomez	07:27:49
Alberto Alberdi	07:27:50
Celso Domingez	07:27:50

EMAITZAK

PILOTA

Aritz Lasa - Laskurain 22
Urrutikoetxea - Patxi Ruiz 15

PALA

Ainhoa /Jasone - Amaia/Alana 30-13
Ihart/Maialen - Irati-Ireber 30-12

FUTBITO

Gamusinos - Kastakuak 8-3
Hola Dok - Torpedos 10-2
Artifices - EGS 4-0
Bandera Trapo - Fronton Team .. 1-7

AGENDA

PILOTA

Tutera, 2009/07/19 17:00
Mtz de Irujo - Eulate
Gonzalez - Laskurain

ASIER ETA IÑAKIREN OMENEZKO VII. PILOTA TXAPELKETA

Zapatua, 18,
22:30etan kiroldegian,
1.go partidua
Gallas - Pontxi
Markel - Argoitz
2. partidua
Loiola - Haritz
Asier Fer - Gorka Moya

Irail Cestau txapeldun

Uztailaren 3an Itziarren Debako lau terdiko pilota txapelketako finala jokatu zen. Kadete kategorian Sorluzeko Irail Cestau Castrok irabazi zuen txapelketa. 16 urteko gazte honek 13 urte daramatza pelotan eta gaur egun Donezteben bizi da..



MARE

ILEAPAINDEGIA

ESTETIKA
SOLARIUM

Errebal kalea 1, behea
Tel.: 943 75 14 89
20590 SORALUZE

GAZTELUPE

taberna

tel: 943 75 20 81

ARGAZKI ZAHARRA



Iturria: www.juanmanuelberrieta

SORALUZKO LEHENENGO DANBORRADIA


Argazki hau 1967. urtian etaratakua da, herrixan lehenengo danborradia egin zanakua. Bertan agertzen dan lagun kuadrillia, kapitaina, kantinera eta laguntzailliak dira, asto eta guzti. Garai hartan be ohikua zan astua danborradan ikustia, zamalanak egitten zittuan eta. Astuan arduraduna, Ismael... zan, Erlei basarrixan urte askuan apopilo izandakua. Argazkiko astua, hain zuzen be, Erleikua da.

ARGAZKIKUAK:

Ismael de Pedro
 Gabilondo
 Arantxa Beretxinaga
 Maria Eugenia Zabala
 Larrañaga
 Plazaola

ZUZENKETA

201. aleko argazki zaharreen zuzenketa bat egin behar da: Jose Antonio Arrillaga bizi da; J. Antonio Loinaz da hilda dagoena. Barkamena eskatzen dizuegu.



EIBARKO HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALA

EUSKO JAURLARITZA



**Eibarko HEOK matrikula
ofiziala uztailak 7-24 eta
irailak 1-7 artean izango
dela adierazten du**

- **Maila Probak Eskolako
web orrian egin ditzakete
ikasle berriek**

**Informazio gehiago:
943 20 06 18 telefonoan
eoeieibar@euskalnet.net
www.eoeieibarheo.net**



Fresatzeko Teknologia



Mahai Mugikorreko Fresatzeko Zentrua



Zutabe Mugikorreko Fresatzeko Zentrua
Mahai Finkoarekin



Zutabe Mugikorreko Fresatzeko Zentrua



SORALUCE, S.Coop.
Osintxu Auzoa
E-20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Tel. +34 943 76 90 76
Fax. +34 943 76 51 28
E-mail: soraluce@soraluce.com
www.soraluce.com



SORALUZEKO JAIKIZAK

galtzagorri jai batzordea



UZTAILAK 24

Ostirala *Gazte eguna*

13:00 Txosnen zabaltzia

13:30 Triki poteua bertolarixekin

14:30 Gaztien herri bazkarixa

17:30 Martxa erraldoia Osintxura Marrazekin

20:00 Kalejira Galtzagorri txarangarekin (Estaziotik zubira)

20:30 Amnistiararen aldeko txosnen zabaltzia txarangiarekin

23:00 Asier eta Iñakiren Omenezko Pelota Txapelketako finala

2:00 Erromerixia **GARRAXI** taldiarekin.

3:00 Aulki jokua

UZTAILAK 25

Zapatua *Gau pasa eguna*

13:00 Bertolari gaztien saiua

23:00 kontzertuak

**TURBOSHIT
MAMBA BEAT**

4:00 Zaku karrera

UZTAILAK 26

Domekia *Amnistiararen eguna*

14:30 Amnistiararen aldeko bazkarixa Plaza Zahartian

23:00 kontzertuak

**SAKAEITAN
SKASTI**

3:30 aulki jokua

UZTAILAK 27 *Azkenengo baita!*
Astlehena

20:00 Gau internazionalista

23:00 kontzertua

**FRIDA
PIPOL**

3:30 Ur jolasak ta aulki jokua

Berrikuko bazkaritarrako TXAR TELAK SALGA!
Gila, Gaztelupe eta Arrano taberna

**GAZTE
AHT EZ**

